



4 EUSKARA

Udaletxean euskara indartzeko lanean

Udal gobernu berria osatu zenetik bide berriak lantzen hasi da euskara udaletxearen baitan. Euskara sailetik atera eta batzordeburu guztien ekimenez euskara lanerako egunerokoan langile guztiek erabiltzea da helburua. Horretarako bilera prozesu bat martxan jarri zuten eta honen bigarren fasean daude dagoeneko. Udaletxe barruko egunerokoa euskalduntzekotan eredu izango da herritarrek bide bera har dezaten.

5 AISIA

Udaleku itxi eta kanpaldietarako eskaintza

Ttaku Kultur Elkarteak aurkeztu ditu udarako herriko gazteei zuzendutako udaleku itxi eta kanpaldietarako eskaintza. Adinaren arabera, Euskal Herriko hainbat txoko ezagutzeko aukera izango dute herriko gaztetxoek Valdegovia, Mendigorria, Nafarroako Bortziriak eta Zumaia Bakiorako kostaldeak.



LAB-ek deituta, manifestazioa herrian

Martxoaren 29ko grebarako deialdia egin dute Lasarte-Oria eta Usurbilgo LAB-ek

Jarraipen zabala izan zuen LAB-ek Usurbil eta Lasarte-Oriarako deituta zuen manifestazioak ostiral arratsaldean. Bertan, martxoaren 29ko greba orokorrerako deialdia luzatu nahi izan zieten herritarrei eta "inposaketa, ukazio eta errepresioaren gainetik", justizia sozialean oinarritutako Euskal Herri burujabe baten aldarria egin zuten.

Herriko kaleak kolore gorri jantzi ziren ostiral iluntzean. LAB-ek deitutako manifestazioan Usurbil eta Lasarte-Oriako ehundik gora lagun bildu ziren langileen eskubideen defentsan. Herriko kaleak zeharkatu ostean, Jon Martin Lasarte-Oriako LAB-eko bozeramaleak hitza hartu zuen eta grebara joateko arrazoiak azaldu zituen.

Greba egiteko arrazoiak

Martinen hitzetan, krisia hasi zenetik, diru publikoa bankuei "oparitu" egin zaie, eta oraindik ere hala gertatzen dela azpimarratu zuen.

Bestalde, langileak erreforma eta murrizketak bata bestearen atzetik pairatzen ari direla salatu eta horrek langabezia hedatu eta "beldurra" zein "ezinegona" zabaldu besterik ez dituela egiten adierazi zuen.

Izan ere, kaleratzeak "merkeagoak" izango direnez, prekarietatea "mugarik gabe" zabalduko denaren beldur



Jende asko bildu zen LAB-ek deituriko manifestazioan, "Inposaketen aurrean, burujabetza" lemapean.

dira LAB-eko kideak, eta emakumeen eta gazteen kolektiboa kolpatuko omen ditu gogorren.

Kapitalaren helburuak

Martinen arabera, kapitalak hurrengo helburuak markatuta ditu jada: "Babes sozialaren esparrua zein Hezkuntza eta Osasun sistema publikoa ditu begiz jota, baina badakigu kapitala ez dela inoiz konformatzen, badakigu ez dela geldirik geratuko. Beraz, guzti honi aurre egin behar diogu, eta horretarako, martxoaren 29a langileon borrokan mugari izatea nahi dugu,

Euskal Herriak ezetz esango baitie inposaketei".

Argi dute era berean, Euskal Herriak burujabetza ekonomiko eta politikoa behar dituela, justizia sozialen oinarritutako gizarte bat eraiki ahal izateko.

Manifestazioaren amaiera

Behin ibilbidea osatuta, Okendo plazan bildu ziren manifestariak. Bertan, "Gora Euskal Herria askatuta!" eta "Gora Euskal Herria sozialista!" aldarriak oihukatuz zein eusko gudariak kantatuz amaitu zuten ekitaldia herriko sindikalista abertzaleek.

Hurrengo deialdiak

Horretaz gain, martxoaren 29an, greba orokorraren egunean bertan, sortu berri den greba batzordeak goizeko 8:00etan eta arratsaldeko 16:00etan kotxe karabanak antolatu dituela jakinarazi dute herriko LAB-eko kideek eta bertan parte-hartzeko deialdia luzatu diete herritarrei.

Bestalde, goizean piketeak izango direla adierazi dute eta arratsaldean berriz, ezker abertzaleak sortutako greba batzordeak deituta, 18:00etan hasiko den manifestaziora joateko deialdia egin dute LAB-eko ordezkariak.

Marka guztietan %10 edo %15eko beherapena udaberri eta udarako arropetan

3pommes
Bench.
CKS
IKKS JUNIOR
Levi's KIDSWEAR

Levis galtzetan eskaintza berezia

ika haur eta gazteentzako jantziak

Geltoki Kalea 3 • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 045978
www.ikaarropadenda.com

Adituak dio

Talaiatik



Nerea Sanchez
Hirigintza Batzorde Burua

Udaletxea

Okendok itxura berria du iazko udatik hona. Bertan, udal eraikin berria harro altxatzen da. Haurrak erdiztean besapean ogia ekartzen dutela esaten ohi da eta horrela gu ere, udaletxe berria opari moduan besapean sartu ginen udalera.

Nabaria da udaletxe zaharrea langileak pilatuta daudela, kasu askotan siamdar bihurtzeko arriskuan ere daudelarik. Ondorioz, eraikin berri baten beharrek ez dago inolako dudarik. Moduarekin zalantzatsuago nago. Alde batetik estetikoak, bestetik lanen esleipena.

Horrelako lan batek irekiagoa, sozialagoa beharko luke. Udaletxe hitzak berak dioen bezala udalaren etxea, denon etxea. Ez kontrol ezta kamerez jositako tokia pentsatua zegoen bezala, ez dugu ezer ezkutatzeko, eta hau zaintzea ere herritar guztioi dagokigu.

Opari guztiek bezala honek ere prezioa du eta hau herriak bere buruari sekula egin dion oparirik garestiena dela esatera ausartzen naiz, 9.065.061 euro, 1.508.299.240 pezeta oraindik pezetetan hitz egiten dutenentzat. Honi udaletxearen jantzea eta mantenu garestia gehitu beharko zaio, oraindik burutu gabe dagoena Interes urbanistikoetatik ateratako diru gehiena hona bideratu denez hainbat urtetan berrikuntza gutxi egin dira herrian.

Aurrekoan Trintxerpeko udal eraikinean egon nintzen eta gurea ekartzeko opari paper ederra ikusi nuen. Arratsaldeko 18:30ak amona koadrila bat hall-eko bankuetan eserita; gazte koadrila bat argazkiak ateratzen eta gizon bat bere ordenagailuarekin internetera konektatua... lehen esandakoa, leku irekia, soziala. Udaletxeak ez du harresi izan behar eta zinegotziak ez gara bertako errege.

Zaharrak berri

Hilabeteak dira Udaletxe berria Okendo plazan daukagula. Kanpotik herritarrek itxura polita duela diote, modernoa, futurista, baina barrutik? ez dakite. Denbora asko da bukatuta ikusten dutela baina oraindik ez dakite noiz zapaldu ahal izango duten, ezta bertan zein zerbitzu eskainiko diren zehazki.

Udal gobernuak behin baino gehiagotan azaldu moduan barrutik ere diseinua da jaun eta jabe, puntako diseinua. Politai bai, baina garestia ere bai. Lehen mailako materiala erabili omen da eraikuntza honetan eta orain, krisi garai honetan luxu gutxirako omen dago Lasarte-Oriako udala. Gastu asko eragingo dituelakoan dago udal gobernu eta altzariak erosteko ere diru partidari ez izanak eragin du

kasu honetan atzerapena. Gainera eraikuntza enpresari dirua zor zaiola azaldu zuten udal ordezkariak orain hilabete batzuk, 600.000 euro inguru, behingoz Udaltxeko giltzen jabe izateko.

Udaletxe zahar zein berriak herritarrenganako zerbitzu onena bermatu behar du eta egun, irudia hain garrantzitsua den honetan ez da nahikoa lan ona egitea. Iritziak iritzi, herritarrek badute hau martxan ikusteko gogoia. Plazan egoiteak bestelako ikuspegia ematen diola ere azpimarratzen dute, erdigune bihurtzen da egungo eraikina ez bezala. Hala ere, gogora ekarri nahi izan dugu egungo udaletxearen iragana, bertatik pasa direlako herriaren historiako pasarte garrantzitsuak.

Hitz eta pitz

Zer iruditzen zaizu Udaletxe berria ?



Elena Perez

Udaletxe berria gustuko dut. Itxura aldetik bestea baino hobea dela iruditzen zait. Barrutik oraindik ezin dugu ikusi, baina modernoagoa eta futuristagoa dirudi. Zaharrea ez dakit nola zeuden, agian leku gehiago behar zuten eta bertan dauden instalazio batzuk zaharkitua geratuko ziren ere bai. Eta ongi iruditzen zait berria egin ahal baldin bazuten egitea.



Flor Eleno Diaz

Udaletxe berria egitea ongi iruditzen zait. Beharra zegoen. Lasarte-Oria handitu da eta oraingoa txikia geratuko zen. Berria egin dutenerako, zerbaitegatik izango da, beharrezkoa zelako edo. Eraikina oso polita da kanpotik eta barrutik ezin dizut esan, oraindik ez baitute ireki. Ez dakit zergatik, dirua ez dagoela esango dute edo, baina ez dakit. Plazari beste ikuspegi bat ematen dio.



Antonio Martinez

Udaletxe berria polita da. Nire ustez beharrezkoa zen, gure herria handitu da. Eraikin berria eta bertako zerbitzuak herritarren hoberako baldin badira, ongi deritzot egin izana. Horrelako berrikuntzekin ados nago. Baina entzun dudanez, krisia dela eta, ezin da erabili oraindik. Arazo latza da hau eta etxebizitza askotan sartu dena.



Hamyd Barec

Ez naiz oraindik barruan izan baina kanpotik polita da. Aldaketa handia da eta onerako izango dela uste dut. Aldaketarekin zerbitzua hobetzea espero dute eta hori ona da herritarrentzat. Oraingoa zaharra da eta kanpoan ez du ia lekunik, kale erdian dago. Berria modernoa da eta leku gehiago du, parkea, plaza dago ondoan haurrak jolastu edo adineko pertsonak egoteko.

Iruditan



Udaletxeak beste itxura bat zeukan 50. hamarkadan. F.Galardi.

Eskola, kartzela, eraikin bat hamaika istorio

Okendo plazan dago Udaletxe berri dotorea. Oraindik Udaletxea denak badu historia luzea. Herritar askok gogoratuko dutenez, bertan kokatuta zeuden "Escuelas Nacionales" delakoak 40-50. hamarkadetakoa irudian ikusten den moduan. Baina ez hori bakarrik, bertan lekua izan zuen Herriko udalaren ordezkariak, eta alondegia ere izan zen, zergak ordaintzeko lekua besteak beste. Kuartela eta kartzela ere egon ziren egungo udaletxean. 1986an Lasarte-Oria udala sortzarekin batera, Herri etxea izandakoak hartu zituen Udaletxe eginkizunak.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

JALGI HADI GARAIPENERA



Behin Amaiurren, hitzaldia eskaini zuten Historiako ikasle Xuban Zubiria, Ugaitz Agirre eta Luken Arkarazo usurbildarrek.

Amaiurrera irteera eta hitzaldia

Asteburuan Amaiurrera bisita egin zuten Jalgi Hadi Garaipenera Buruntza ekimenekoek eta Gazte Martxara joateko deia zabaldu dute

Nafarroko konkistaren 500. urteurrenaren harira, Gazte Martxa izango da apirilaren 6-7an, Saratik Lesakara. Antolatzaileek jendeari animatzeko deia luzatu eta bonoak erosteko azken eguna hilaren 30a dela jakinarazi dute, 25 eurotan ohiko lekuetan.

Goizeko 10:00ak aldera abiatu ziren Buruntzaldeako Jalgi Hadi Garaipenera! ekimeneko gazteak auto-

busez Lasarte-Oriatik.

Amaiurren historia

Behin Amaiurrera iritsita, Historiako ikasle diren Luken Arkarazo, Ugaitz Agirre eta Xuban Zubiria usurbildarrek hitzaldi bat eman zuten.

Duela 500 urte Amaiurren izandako gertaerak, orduko testuinguru soziopolitikoak eta gaur egunera arte, han gertatutakoak izan duen ondorioak azaldu nahi izan zituzten.

Hitzaldi interesgarriaren ostean, hamaiketako egin zuten Amaiurreko monolitoaren azpian, eta jaitsiera trikitiaren laguntzaz egin zuten

autobusez Elizondora joateko.

Elizondon bertan, trikipotean aritu ziren tabernaz taberna eta euskal dantzen doinuen laguntzaz, izan zen arin-arin edota fandangorik ere.

Hantxe bazkaldu ostean, arratsaldean tribial moduko joko bat egin zuten. Besteak beste, Nafar erresumari buruzko galdera historikoak erantzun behar izan zituzten, mimika egin, Euskal Herriko herri ezberdinak mapan kokatu etab.

Nafarroa aldean egun zoragarria igarota, arratsaldeko 18:00tan buelta egin zuten.

Aitona Matiasekin oroitzuz

Gaur egun pil-pilean dagoen gai bat jorratu zuten larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur-etxean, alzhemerrarena hain zuzen. Txotxongilo ikuskizun goxo baten bidez kontatu zuten geroz eta jende gehiagori erasaten dion gaitza. Gai gordina bere oinarrian, baina kontatzeko eran leuna.

Kataluniako "Teatre Nu" antzerki konpainiaren ideia orijinala izan zen Nora biloba eta Matias aitonaaren harreman afektiboa txotxongilo bidez taularatzea.

Printzipioz txikienei bideratutako antzerkia bada ere, helduek ere primeran pasatu zuten aitona-biloba arteko sinbosia ikusten.

Maitatzea garrantzitsuena

Izan ere, Norak ez du ikusten



Ikuskizun polita eskaini zuten kultur-etxean txotxongilo bidezko antzerkiaren bidez.

aitonaaren meoria galtzea gertakizun tragiko gisa, errealtateare parte ikusten du, aldagaria den zerbait, eta ondorioz, aitona gairatuta egin dezakeela sinestera iristen da. Horretarako, eginahalak eta

bi egiten ditu aitona bere izena gogora dezan, eta lortuko ez badu ere, uneoro erakutsiko dio zenbateraino maite duen. Alzhaimerra ez baita besarkada bidez kutsatzen, maitasuna bai.



IKASTAROA

Birziklatuz gauza politikak egin daitezke

Lau astetan hainbat bitxi eta belarritako egin dituzte Erribera kaleko Ttakunen lokal zaharrean Bitxigintza ikastaroan parte hartu dutenek. Martxoan 8an hasita ostegunero bildu dira arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara bitartean eta datorren ostegunerako deitu den greba dela eta, ostiralera aurreratu zuten azken saioa.

Ttakunek antolatutako tailerrean, Olga Blanco bitxigilearen laguntzarekin, material birziklatua erabili dute bitxiak egiteko, esaterako kortxoak edo arropa zaharrak. Olga Blancok bigarren urtez jarraian eman du ikastaroa eta parte hartu dutenak oso gustura aritu dira. Modu errazean sortu dituzte bitxiak, edozeinek egiteko moduko gauzak egin dituzte.

Aipagarria da gainera ikastaroan gauza zaharrak birziklatuz sortu direla pieza berriak, diru gutxirekin gauza politikak egitea posible dela frogatuz.

IKASTAROA

Eureka! Zientzia Museora irteera

Apirilaren 4an, asteazkenean, Aste Santuaren atarian, Eureka! Zientzia Museora irteera antolatutako Ttakunek 5-8 urte arteko haurrentzat. Ttakuneko aisia sailak jakin arazi duenez, Eureka! Zientzia museo eta planetarium-a ikusteko aukera eskainiko duen irteera honetan, HH4 eta LH2 maila arteko haurrek parte hartu dezakete eta nahi duen ororentzat irekia izango da.

Goiz osoko irteera izango da, 10:00etan Erribera kaleko lokaletik abiatuko dira eta 13:30ean, Zumaburuko autobus geltokian jaso beharko dira haurrak. Ttakuneko bazkideek 8 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 10 euro.

UDALEKO GAIK

Okendo plaza altxatzeri buruzko zurrumurrua ukatu du PSE-EEK

Jesus Zaballos PSE-EEko bozeramaleak ukatu egin du kontzertu edo emanaldietan erabiltzeko Okendo plazan argi-ondar koadroa jarri behar dela eta zorua altxatu egin behar denik.

Hain juxtu hori galdetu zuen Zaballosek martxoko Udal Batzarrean eta Hirigintza saileko Nerea Sanchez zinegotziak erantzun zuenez, printzipioz ez da Okendoko zorua altxatu beharrik izango. Momentuz, plaza atzeko aldean dagoen argi-ondar koadroa erabiliko da eta plazan berri bat jartzeko aukera aztertzen ari dira, potentzia gehiago eskatzen duen kontzertu bat egiten denerako.

Zaballosek prentsa ohar batean adierazi duenez, galdera egin dute herrian zurrumurrua zabaldu delako, plaza "txapuz" dela eta estreinatu eta egun gutxitara berriro altxatu behar dela esanaz. Zinegotziak salatu du, Herritar Plataformak zabaldu duela zurrumurrua, Udal Gobernuari hasi eta berehala etxeko etxe banatu zuten "lanerako ordua da" izenburua zuten "panfletoan".

PSE-EEko ordezkariaren ustez, "honek alderdi politiko honen maila erakusten du, bere kontzientzia garbitzeko gezurrak esan eta sozialisten lanari buruzko salaketa faltsuak egitea izan zen egin zuten bakarra".

Euskararen bide berriak udaletxean

► Bilerak antolatu dituzte udaleko langile guztiak euskara izan dadin eguneroko lanean hizkuntza nagusia ► Ekimena udaleko batzordeburu guztiak babestu dute ahobatez

Udaltop topaketetan alkateak adierazi zuen hizkuntzak desberdin kudeatzen ari direla egun udaletxean, euskara balio sinbolikoa izatetik udaletxe barruko eguneroko zereginak egiteko tresna bihurtzen ari delako. Ostegun eta ostiralean kultur-etxean burutu ziren topaketak "Nolakoa da gure (udalaren) hizkuntza politika? Begiratu, mesedez, euskara-sailetik kanpo" izenburupean. Euskal Herri osotik etorritako ia 200 lagun bildu ziren, udaletako euskara teknikariak, zinegotziak eta alkateak.

Maidar AZURMENDI

Udaltop topaketa hauek Euskal Herri osotik etorritako ia 200 lagun bildu zituzten. Gehienak udaletako euskara teknikariak, zinegotzi eta alkateak. Hitzaldiez gain, hainbat udaletako esperientziak kontatu zituzten teknikari eta kargu politikoez topaketetan eta Lasarte-Oriako alkatea Pablo Barriok ere hitz egiteko aukera izan zuen irekiera ekitaldi ofizialean.

Honetan adierazi zuen Lasarte-Oriako Udalean aldaketa garrantzitsuak egiten ari direla euskara eguneroko zereginetarako lan-tresna izan dadin.

Agintaldi honen hasieran, euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko, orain arte egindako lanari jarraipena ematea zuten helburu udal agintari berriek, alkateak azaldu moduan "ez genekien zer aurkituko genuen baina uste dut ordurako zenbait bide behintzat irekita zeudela euskararen esparruan". Hala ere, lehen astean bertan hiru alderdi politiko desberdinetakoak diren batzordeburuak elkartu eta "praktikoagoa" eta "koherenteagoa" izango zen hizkuntza-politika berri bat egitea erabaki zuten.

Horretarako, "bidaia" bat egitea planteatu zuten, horregatik ekimenaren Travel Kluba ezizena, eta bidaia horren orientazio berria bi

ideiatan oinarritu zuten. Batek, orain arte euskararen erabilera sustatzeko gizarlean egindako lana ontzat jotzen bazuten ere, lehendabizi, koherentzia, udaletxe barrutik hasi behar zuela lan horrek erabaki zuten. Bigarrenik, lana benetan emankorra izan dadin, euskara, soilik euskara zerbitzuaren kontua izatetik, udaletxe erdigunera eraman behar zutela adostu zuten.

Eredu izan

Agintaldi honetan, arduradun politikoen gaitasun linguistikoa erabat aldatu dela esan daiteke, ia batzordeburu guztiak elebakarrak izatetik, denak elebidunak izatera pasatu da. Gaitasunaz gain, euskararekiko jokaerak desberdinak direla diote guztiak.

Gehienok elebidunak izatera iritsi heinean, "gaitasunean baino jokaeretan dago euskara zeregin gehiagotarako erabiltzeko gakoa" eta horregatik batzordeburuak adostu dute beraien praktika linguistikoa ereduagarria izatea gainontzeko zinegotzi, langile eta herritarrentzat.

Departamentu guztietan

Bakoitzaren abiapuntua, egoera, erritmoa oso kontuan izanik, baina euskara sustatzeko hizkuntza-politika erdigunera eraman dutela diote Travel Klubeko kideek. Hau da, alkatetzara eta erabaki-guneetan dago orain euskara. Hala



ere departamentu guztietan lan-hizkuntza modura gehiago erabil dadin eta departamentu guztiak eskaintzen dituzten zerbitzuez baliatzeko tresna izatea nahi da.

Bide hori egiteko, arduradun politikoen jarreraz gain, langile guztiak egin beharreko prozesua dela dio Barriok eta horretarako, departamentuka ari direla lanean. Urritik abendura hogeitik gora bilera egin zituzten batzordeburuak eta alkateak, bide berri hau aurkezteko, zerbitzuetako arduradunei lehendabizi eta langile guztiei ondoren.

Apirilera bitartean iraungo duen bost bilerako dinamika bat gauzatzen ari dira departamentu bakoitzean langileek prozesuan parte har dezaten. Prozesua ez da amaitu, baina udaletxe ia langile guztiak ari dira parte hartzen eta 300 proposamenetik gora jaso dira dagoeneko.

"Langile guztiak ondo hartu dute ekimena. Gehien-go bat euskalduna da, badago euskara ulertzen duen beste talde bat, hitz egiteko pausoa ematea falta dutenek, eta

gutxi batzuk badira ere soilik gaztelera dakitenak. Hala ere, euren jarrera ona da eta errespetuz jokatzeko ari garela ikusi dute, ez dugu ezer inposatu, gainera hala eginda kontrako efektua sortuko litzatekeela uste dut" azpimarratzen du alkateak.

Bidegorria

Prozesuaren azken helburua eta jasotzen ari diren proposamenen zentzua, eguneroko praktikan euskarari bidegorria irekitzea dela diote. Hau da, euskara erabili nahi dute udaletxe eginkizunetan, eta gaztelania ere erabiliko dute, baina komunikazio-egoerak horren beharra duenean soilik. "Azken helburua dena euskaraz egitea litzateke. Komunikazioa ziurtatzeko gaztelaniaren beharra ez dagoenean ahoz nahiz idatziz behintzat". Horri deitzen diote bidegorria.

Euskararen bidegorri hori, ordea, oraindik ere estua dela aitortzen dute. "Lan asko dago egiteko baina barrutik gogoz ari gara hau burutzen". Horrela alkatea zein batzordeburuak herritar guztiak

gonbidatu nahi dituzte udalera euskaraz zuzen daitezen, ahoz zein idatziz, informazioa eskatu nahi dutenean, kexa bat azaltzerako garaian edo zerbitzu bat erabiltzerakoan.

Herritarrek animatu nahi dituzte udalarekin harremanetan jartzerakoan askotan administrazioarekiko dugun irudi erdaldun horrek jartzen dizkigun mugak gainditzera eta lehen hitza eta bigarrena euskaraz egitera. "Hori baita, bidegorria denon artean zabaltzeko biderik eragingarriena".

Udaltop arrakastatsua

Alkateak ere Udaltop topaketen inguruko balorazio orokorra egin nahi izan zuen izan ere jende asko etorri da gurea topaketen egunetan eta hori "Lasarte-Oriarentzat ona da".

Gaia nahikoa teknika izan arren, parte hartzaile kopurua handia izan da eta bilgune garrantzitsu bat dela esan daiteke alkatearen ustez egun laugarren edizioa gaindituta, "erreferentziatzeko topaketak dira dagoeneko".

aste santuko
Zientzien 2012
TXOKOAK



abrimos de 9:00 a 13:30 etara
de martik marixan

2tik 8 urte bitarteko haurrak hartuko dira
(2004tik 2009ra bitartean jaioetakoa)

apirilaren 2-3-4 + 10-11-12-13 de abril

amaraun
ludoteka

Gazteek, udan aspertzeko astirik ez

- ▶ *Ttakun kultur elkarteak Udaleku itxiak antolatu ditu LH3 eta LH6 mailako gaztetxoentzat*
- ▶ *DBH 1 eta DBH4 artekoek, berriz, milaka bizipen izango dituzten KTG kanpaldietan*

Ttakun Kultur elkarteak herriko gazteei zuzendutako udaleku itxi eta kanpaldietako eskaintza aurkeztu du. Adinaren arabera, Euskal Herriko hainbat eremu ezagutzeko aukera izango dute herriko gaztetxoek, Valdegovia, Mendigorria, Nafarroako Bortziriak eta Zumaia Bakiorako kostaldea. Milaka abentura biziko dituzte eta kanpaldietan gainera, lagun berriak egiteko aukera izango da, Hernaniko, zein Durangoko gazteekin batera egingo baitira. Beraz, udara honetan ere ederki gozatzeko aukera izango dute.

Nerea EIZAGIRRE

Jolasak, irteerak, ibilaldiak... eta berrikuntza ugari dago aurtengo udarako Ttakun Kultur elkarteak antolatu dituen Udaleku itxi eta kanpaldietan.

LH3 eta DBH4 maila bitarteko gaztetxoek uda honetan aspertzeko astirik ez dutela izango eta primeran igaroko dutela aurreratu digute Aisia saileko arduradunek.

Udaleku itxiak

Berrikuntza nagusia LH3 eta LH6 mailako gaztetxoentzat dago. Iaz ez bezala, aurtentan bi kanpaldi desberdin egingo dira.

LH3 eta LH4 mailako haurrak Mendigorriara joango dira uztailearen 17a eta 28a bitartean.

"Aurreko urteetako etxe berean izango dira haurrak. Eta honen berezitasun handiena, igerilekua duela da," gogoratu dute antolatzaileek.

Bestetik, Valdegovia eta bere inguruak ezagutu ahaliko dituzte zaharrenek, LH5 eta LH6 mailako gaztetxoek.

Egonaldia uztailearen 3 eta 14aren bitartean izango da. Aisiako saileko arduradunek jakitera eman dutenez, Valde-

govia aterpetxean egingo dira haurrak eta honetan, "bainatzeko lekua izango dute".

Gainera, lehenengo egunetan bibac-ak egingo dutela, hau da aterpetxetik kanpo lo egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek.

Eta Udalekuetan noski jolasak, irteerak, gaubelak eta milaka ekintza dibertigarri izango dituzte egunero gozatzeko.

Mendigorria eta Valdegoviako udalekuen prezioa 235 eurotako da. Ttakuneko bazkideek, berriz, 217 euro ordaindu behar dituzte.

Udaleku gehi txokoak

Gainera, aurtentan ere, bi udaleku itxi hauek, Mendigorria eta Valdegovia, Txokoekin uztartu daitezke. Era honetara, gaztetxoek haien lagunekin hilabete osoa igaro eta mila bizipen partekatu ditzakete.

Eskaintza hauen kasuan, Lasarte-Orian erroldatuek 288 euro ordaindu behar dituzte edo erroldatu gabeez, 311 euro.

KTG kanpaldiak

Era berean, DBH-ko gaztetxoentzat kanpaldi ibiltariak izango dira eta aurtentan ere,



Mendigorria eta Valdegoviako udaleku itxietan ekintza ugari egingo dituzte gaztetxoek, esate baterako, margo guda.

ibilbidea aldatu ta Euskal Herriko beste txoko batzuk ezagutzeko aukera izango dituzte.

DBH1 mailako gazteek Zumaia-Bakio kostaldeko ibilbidea egingo dute uztailearen 3tik 4ra.

Eta DBH 2 eta 4 maila artekoek, berriz, Bortzirietan barrena, hau da, Nafarroako iparraldean ibiliko dira. Lesaka, Bera, Arantza eta inguruko hainbat herri ezagutu ahaliko dituzte.

Bi kanpaldi hauetan gainera, lagun berriak egiteko aukera izango dute gazteek Durango eta Hernaniko taldeekin batera egingo baitute bidea.

Antolatzaileek jakin arazi digutenez, mendi ibilbideak, abentura eta ur ekintzak... izango dira bi kanpaldietan, "gazteek primeran pasatzeko".

Bi kanpaldien prezioa 245 eurotako da, baina Ttakuneko bazkideek beherapena dute eta hauentzako prezioa 227 eurotako da.

Izena ematea

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, bai Udaleku itxi, baita kanpaldietan izena emateko lehentasuna izango dute Ttakuneko bazkide eta Gazte kluba eta Kuadrillategiko partaideek.

Hauek martxoaren 26tik apirilaren 20ra eman behar dute izena behar dira.

Gainontzekoak apirilaren 23tik maiatzaren 18ra egin ahaliko dute izena ematea.

Honetarako bi bide egongo dira batetik Ttakun kultur elkartera hurbildu eta ordainketa txartelarekin egin edo 2101 0048 25 0010089696 kontu korrante zenbakira

transferentzia eginez. Azken kasu honetan ordain agiriaren kopia eraman beharko da Ttakuneko bulegora.

Internet bidez ere izena eman ahaliko da. Era honetara egiten dutenei, lekua mezu bidez ziurtaraziko zaie.

Guraso bilerak

Honetaz gain, gurasoekin bilerak egingo dituzte udaleku itxi eta kanpaldietako nondik norakoak azaltzeko.

Gauzak honela, udaleku itxietako bilerak Manuel Lekuona kultur-etxean izango dira Mendigorria ekainaren 8a, 17:00etan eta Valdegovia ekainaren 8a, 18:15etan izango dira.

Eta kanpaldietakoak, berriz, leku berean Zumaia-Bakio ekainaren 22an, 17:00etan eta DBH 2-4 ekainaren 22an, 18:15ean.



Kanpaldietan ekintzak nagusi izango dira. Bakio-Zumaia ibilbidean esate baterako, urarekin zer ikusia izango dute.



Herri kirolentzako tartea ere bada Ttakun elkarteko udaleku eta kanpaldietan.

IGERIKETA.-

Igerilariek domina uzta handia izan zuten

Buruntzaldea IKT-ko kideak bikain ibili ziren Euskadiko eta Zarautzko Master txapelketan

Lehenago asteburuan, martxoaren 17 eta 18an, Euskal Herriko Neguko txapelketa eta Zarautzko II. Master txapelketa ospatu ziren. Buruntzaldea Igeriketa taldeko ordezkariak izan ziren bietan eta emaitza paregabeak lortu zituzten. Guztira, urrezko hiru domina, zilarrezko bost eta brontzezko lau.

Neguko denboraldia bukatzeaz da, baina Buruntzaldea IKT-ko lagunak gogor jarraitzen dute lehian. Lehenago astean ere, Euskal Herriko txapelketan eta Zarautzko II. master txapelketan izan ziren.

Euskal Herriko Neguko txapelketan Buruntzaldea IKT-ko lau kide izan ziren Itsaso Tolosa, Iñigo Ibarburu, Haitz Mitxelena eta Mikel Esnal eta bi Euskadiko txapeldun, txapeldun orde bat eta 3 brontzezko domina lortu zituzten.

Itsaso Tolosa hurrengo asteburuan izango duen Espainiako Open txapelketa prestatzen ari da eta lau probatan parte hartu zuen.

200 m. bizkar proban bere marka berdindu eta bi domina eta Euskal Herriko titulua lortu zituen, absolutu mailako brontzea eta junior mailako urrezkoa.

100 m. bizkar proban bere marka hobetu eta zilarra eskuratu zuen eta 50 m. bizkar proban ere bere marka hobetu zuen.

Era berean, Haitz Mitxelena bere proba guztietan marka pertsonalak jaistea lortu zuen.

Eta honetaz gain, 200 m. tximeletan bi domina eskuratu zituen, brontzea absolutu mailan eta urrea promesa mailan.

Mikel Esnalek ere markak hobetu zituen eta hirugarren izan zen 100 m. estiloak proban. Gainera, 100 m. libre proban Unibertsitate arteko Espainiako txapelketarako gutxieneko markatik 18 ehunekoetara geratu zuen.

Bestalde, Iñigo Ibarburu infantilak 200 m. estiloetan, 200 m. bizkar eta 100 m. tximeletan bere marka hobetu zuen eta 100 m. bizkar pro-

ban, Espainiako txapelketarako gutxieneko marka berria lortu zuen.

Masterrak

Zarautzko Master mailako II sarian ere emaitza onak lortu zituzten igerilariek. Sailkapen orokorrean Oier Mitxelenak urrea, Laura Igeak, Amagoia Fernandez de Lezeak, Juan Vicente Martinek eta Ander Lazkanok zilarra eta Gorka Fernandezek brontzea lortu zuten.

Borja Apeztegiak entrena-tzailek azaldu zigunez, "taldea urriaren erdialdean sortu berria izanik, benetan txukun aritu zen".

Emakumeetan, Amagoia Fernandez de Lezeak PF mailan 100 m. bular proban irabazle izan zen eta bigarren 100 m. estiloetan.

Yoli Pastor 50 m. bizkar proban F2 mailako bigarren postua, 100 m. libreetan hirugarrena eta 100 m. estiloetan bigarren izan zen.

Laura Igeak, F4 mailan, 50 m. tximeleta proban lehen postua eskuratu zuen eta 100 m. estiloetan bigarrena. Eta maila berean, Noemi Montero 100 m. libre proban hirugarren izan zen.



Master taldea ederki moldatu zen bere lehenago txapelketan.

BURUNTZALDEA IKT

Gizonezkoetan, aldiz, Oier Mitxelena PM mailako 50 m., 100 m. eta 200 m. libre probatan lehenengo izan zen.

M5 mailan, Juan Vicente Martin 50 m. libre proban lehenago eta 100 m. eta 200 m. libre probatan bigarren izan zen. Maila berean, 50 m. libreetan Jose Luis Sevillano hirugarren izan zen.

M3 mailan, 200 m. libreetan Javier Miguel bigarren.

M1 kategorian, Ander Lazkanok, Gorka Fernandez eta

Imanol Guerra lehenengo, bigarren eta hirugarren izan ziren 200 m. libre proban eta 50 m. eta 100 m. libreetan Ander Lazkanok bigarren izan zen eta Gorka Fernandez hirugarren.

Honetaz gain, erreleboak ere izan ziren. 4x50 m. estiloetako errelebo mistoa 6. sailkatu zen eta 4x50 m. libre erreleboan hiru talde osatu ziren. Emakumezkoen taldea bigarren postuan amaitu zuen eta gizonezkoenak batek laugarren, besteak seigarren.

PILOTA.-

Intzako seniorrak Udaberri txapelketatik kanpo

Norgehiagoka estua jokatzen zuten I. senior mailako Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola Intzako pilotariak Eskoriatzako bikotearen aurka. Tamalez, larunbat arratsaldean jokatutako partiduan etsi behar egin izan zuten Michelinen (22-17).

Hala ere, esku-eskura izan zuten finalerako txartela, joaneko partidua 22-19 irabazi baitzuten Eskoriatzan eta beraz, hiru tantoren aldeagatik geratu da kanpoan herriko bikotea.

Partidu bizia

Michelingoa partidu polita izan zen larunbatekoa, emozioz bete. Pilotariak tanto luze eta gogorrak jokatu zituzten eta aurrelariak sarritan sartzen ziren jokoan euren gantxo eta dejadekin ikuskizun dotorea emateko.

Partidu hasiera giltzarri

Kosta egin zitzaion pixka-bat herriko bikoteari partiduan



Artetxe aurrelariak bere kalitatearen berri eman zuen gantxo eta dejada itzelak eginez, baina erregulartasuna falta izan zitzaion.

sartzea. Horren erakusgarri 8-3ko desabantailarekin hasi zuten partidua. Jose Felix Solano prestatzailearen hitzetan, "pazientzia" gutxierekin aritu ziren norgehiagokaren hasiera horretan.

Intzako erreakzioa

Partidua eskoriatzarren alde 14-7 zela, lasarteoritarrek zazpi tanto egin zituzten erreskadan, Artetxe aurrelariaren kalitatea eta kanpotarren behartu gabeko hutsak balia-

tuz. Ondorioz, hamalauna jarri ziren markagailuan, tanto bat gaintetik ere egon ziren, baina partidua azken zatian, eskoriatzarrak izan ziren nagusi eta adio esan diote Udaberri txapelketari.

JUDO.-

Judoka gazteak ere dominak lortzen

Lehenago astean, LOKEko judoek bi txapelketa garrantzitsu izan zituzten, batetik txikienean sanboko alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketa izan zuten Anoetan eta bestetik, Oscar Garrido eta Fermin Balda judoko kadete mailako Superkopan izan ziren Madrilan.

Taldeko txikienek lortu zituzten emaitza paregabeak oraingoan. Alebin mailan, Eneko Eizagirre eta Beñat Eleizegik bere mailako lehenengo postua eskuratu zuten; Ander Garrido bigarren izan zen eta Alex Saseta, Manu Revuelta eta Garikoitz Menak hirugarren postuan izan ziren.

Eta Jorge Revuelta eta Haritz Urdangarin infantilek ere, dominak lortu zituzten, bi brontzeko.

Tamalez, Madrilan, kadete mailako kopan Oscar Garridok eta Fermin Baldak ez zuten zortetik izan eta haien lehenengo borroketan kanporatuak izan ziren.

Agenda

Asteartea 27, 18:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Bidaia berezia

Aste Santua dator eta apirilaren 2an haur liburuaren eguna da. Hori dela eta, Lasarte-Oriako kultura sailak haur liburutegiarekin elkarlanean ipuin kontalari saioa antolatu du biharko. Inguma taldeak "Bidaian" ikuskizuna eskainiko du haru liburutegian. Hau 5 eta 6 urte arteko haurrei zuzendua dago. Euskaraz. Doan.

Jalgi Hadi Garaipenera!

Euskal gazteriak bere osotasunean sorturiko Jalgi Hadi Garaipenera dinamikaren baitan, Lasarte-Oriako gazteek ere, bereari ekin eta egunero ezkutatu nahi duten Euskal Herriko historia plazaratu eta aldarrikatu nahi dute.

Aste honetan hainbat ekintza prestatu dituzte gure herrian:

- Martxoak 28, asteazkena, afaria eta bideo emanaldia izango dira Xirimiri elkartearen.

- Martxoaren 31ean, larunbatean, "Ezkutua-eskura" izeneko jardunaldia egingo da. Honetan, mendi irteera, hitzaldia, bazkaria, bertso saioa eta trikipoteoa izango dira.

Informazio gehiago jaso nahi duenak, tuentiko Buruntza Jalgi Hadi Garaipenera eta facebookeko Jalgi Hadi Garaipenera Buruntzaldea kontuetan, edo jalgihadiburuntza@gmail.com helbidean eskuratu dezake.



Lasarte-Oria Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 1, 19:00etan

Haur zinea atalaren barruan, "Los Muppetts" filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,40. Gaztelaniaz.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 30, 19:00etan

Lasarte Oriako Musika atalaren barruan, "KantaJimJazz" taldearen kontzertua izango da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoan zehar

Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude, zerbitzariei galdetu.



XX. urteurrena

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA
Asteazkena 28, 20:00etan

Semblante Andaluz elkartearen

XX. urteurrena dela eta, "20 años entre folclore y fogones" liburuaren aurkezpena.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 31, 19:00etan

Semblante Andaluz elkartearen XX. urteurrena dela eta, "Sueño andaluz" ikuskizuna antolatu da.

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA
Igandea 1, 14:30etatik aurrera

Semblante Andaluz elkartearen XX. urteurrenako ospakizuna:

- 14:30ean, bazkaria
- 17:30ean, "Amigos del sur" taldearen emanaldia
- 18:30ean, dantzaldia
- 20:00etan, Jaialdi amaiera

Herritarren txokoa

Galdutako agenda

Poltsiko agenda bat galdu zen duela bi aste, Orbelako autobus geltokian. Aurkitzen duenak dei dezala, 639 220 506 zenbakira.

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, martxoaren 26ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitezte, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, martxoaren 30ean Lasarte-Oriako Herrira elkarteak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Helduentzako igeriketa ikastaroa

Udal Kirol zerbitzuak apirilaren 2tik 30era, helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko du udal kiroldegian.

Jarraipen ikastaroa hau astelehenero ostiralera goizeko 10:00etan izan-

go da. Izena emateko azken eguna martxoaren 29a, osteguna da.

Ikastaroak 105,70 euro balio du eta kiroldegiko bazkide direnentzat 58,70 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu edo 943 376 182 telefonora dei dezakezue.

Igeriketa saioak haurtxoekin

Udal Kirol zerbitzuak martxoaren 31etik ekainaren 23 a arte 6 eta 24 hilabete bitarteko haurtxoekin igeriketa saioak antolatu ditu.

Aste saio bakarra izango da larunbatetan. 6 eta 12 hilabetetako haurtxoek 9:30ean izango dute jardunaldia eta 12-24 hilabetekoek 10:00etan. Izena emateko azken eguna, bihar, martxoaren 27a da.

Ikastaroak 110,10 euro balio du eta kiroldegiko bazkide direnentzat 61,70 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu edo 943 376 182 telefonora dei dezakezue.

Hizki-zopa

Aurkitu Lasarte-Oriako 12 kale

B	Z	D	A	N	T	X	O	T	A	E	G
H	U	R	U	B	A	M	U	Z	J	K	J
I	L	D	C	A	D	D	I	E	M	O	U
B	I	L	A	S	L	O	S	K	J	F	A
L	O	I	D	I	U	K	T	A	L	O	N
A	A	E	H	B	C	V	I	B	N	B	G
S	Y	R	E	R	O	T	N	I	P	N	A
L	O	L	G	D	U	J	K	L	Ñ	A	R
E	R	D	F	O	H	H	J	I	K	G	A
Z	S	F	U	E	N	S	E	T	T	E	I
O	I	K	O	T	L	E	G	O	H	E	B
G	Z	B	O	U	T	A	A	D	F	H	L

Erantzuna: Uistin, Pintore, Talo, Zumaburu, Juan Garai, Largonea, Loidi, Ganbo, Geltoki, Caddie, Blas Lezo, Antxota

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LH5 mailako ikasleak

20 urte bete ditu Semblante Andaluz-ek

- ▶ Asteazkenean bere ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztuko du Andaluziarren elkarteak
- ▶ Asteburuan elkarteko talde ezberdinen ekitaldia eta bazkideen ospakizuna izango dituzte

Semblante Andaluz herriko andaluziarrak biltzen dituen elkarteak 20 urte betetzen dituela eta, zenbait ekitaldi antolatu dituzte aste honetan. Elkartearen 20 urteetako historia jasotzen duen liburua aurkeztuko dute asteazkenean, elkarteko dantza eta kantu taldeek emanaldi berezia eskainiko dute larunbatean kultur-etxean eta igandean bazkari batekin ospatuko dute urteurrena.

Jon ALTUNA IZA

Kaxkarroko behatokia, parapeto gisa ezagutzen den tokian egin zuten bilera batean sortu zen Semblante Andaluz elkarte 1992ko martxoaren 28an.

Kulturak pisu handia izan du hasiera hasieratik andaluziarren elkartean eta kantu, musika eta dantza talde ugari izan dira bere baitan. Ikastaroak antolatu ditu urteetan, haur eta helduentzat, eta beste zenbait jardura ere bai, besteak beste, hiru dimentsiotako arte lanak, antzerkia, bidaiak, sukaldaritza ikastaroak, ... Elkarteko arduradunek adierazi dutenez, "sarri baliabide asko gabe", baina Kultur Elkarteko kideen borondate on eta laguntza handiarekin.

Jose Perez lehen presidentek proposatu zuen Semblante Andaluz izena. Lagun arteko soltasaldi batean sortu zen ideia: batek aipatu zuen andaluziarrak erraz integratzen direla edonon, ezaugarri, ohitura eta izaera moldatuz, eta soilik hegoaldeko jendearen "semblante" edo begitarte ia beti alai eta baikorra geratzen zaiela.

1992an Blas de Lezo kaleko lokal batean hasi eta 1998an aldatu zen elkarte Atsopakarrera. Golf plazako lokala erosi eta zati handi batean bazkideek beraiek musu truk egindako lanari esker ireki zuten elkarte berria.

Abesbatza

Semblante Andaluz elkarteko helduen lehen kultur taldea, Semblante-Rociero abesbatza, 1993an sortu zuen José Pérez bazkideak. Hainbat tokitan kantatu du, besteak beste Santiagoko Katedralean erromesaren mezan, Loiolako Santutegian edo Donostiako Artzain Onaren katedralean, Huelvako Encinasola herrian, Euskal Herriko feria, erromeria eta mezetan, Kultur-Etxe eta antzokietan, "oro har eskatu zaigun guztietan".

Jose Perez Semblanteko lehen presidentearen iritziz, "gure sustrai eta ohiturak ahaztu ez daitezten lanean segituko dugu umiltasunez, dauzkagun baliabide urriekin, baina talde-

kideen arteko adiskidetasunak eta hauen borondatezko lan eskuzabalak ematen duen indarrarekin".

Dantza taldeak

Lau dantza talde eta Sentimiento Andaluz boskotea ere badira Semblante Andaluz elkartearen baitan. Hau 2005ean sortu zuten lau bazkidek, Andaluziako Eguna ospatzeko nahikoa talde ez zeudela eta.

Pasodoble, rumba, sevillana eta koplak kantatzen dituzte taldeko Jose Chinchilla eta Antonio Oñate gitarra-joleek, Lonjinos Celeyros biolin-joleak eta Mercedes González eta Juan Millan ahotsak.

40 dantzari ari dira gaur egun Mari Carmen Vegas-en aginduetara, lau dantza talde-tan banatuta: helduek osatzen duten Zambra, haurrek Azabache, eta neskatok dantzatzeko Duende Flamenco eta Gitanillos del Alba, baina elkartearen historian beste batzuek ere izan dira Kultur Arloaren lanari esker. Vegas berak, Olga Bermudez eta Yolanda Varelak sortu zuten lehen taldea 16 gaztetxorekin eta gehiena 80 lagun izatera iritsi zen.

Lehen urteetan bost talde sortu ziren, Embrujo, Aljarafe, Duende Gitano, Aires Flamencos eta Semblante Andaluz, eta 1998ko martxoaren 28an, lokal berriaren estrenaldian, dantza egin zuen lehen aldiz Azabache umeen taldeak. Aipagarria da Semblanteko taldeak kanpora joaten zirenean, Ipar-Hego taldeak euskal dantzak eskaintzen zituela Andaluziakoekin batera.

Antzerkia

Aljarafe antzerki taldea ere jardun zen elkartearen baitan, 2000tik 2007ra bitartean, Nikaraguako nekazal inguruetako komunitateei laguntzeko dirua biltzeko eta laguntza emateko helburuarekin.

Garbi izan zuten hasieratik taldeko hogeiki kide inguruk, bere andaluziar kutsuarengatik Quintero anaian lanen bat prestatu behar zutela eta "El Genio Alegre" antzezlanarekin egin zuten debuta San Pedro jailetan. Entseguak Elkartearen egiten zituzten, adiskidetasun



Belaunaldi ezberdinetako herritarrek elkartean dira Semblante elkartearen Andaluziako piezak kantatu eta dantzatzeko.

handia sortu zen eta bazkideen laguntza izan zuten, esaterako dekoratuak egiteko Jose Chinchillarena. Arrakasta handia izan zuen lehen lanak eta baita ondorengo "Puebla de Mujeres", "Mariquilla Terremoto", "Los pobrecitos", "Veneno para mi marido", "Cinco lobitos" eta "Doña Clarine" lanek ere.

Elkartearen historia liburuan

20. urteurrenako egitaraua asteazkenean hasiko da elkarteak bazkideen laguntzarekin argitaratu duen liburua aurkeztuarekin.

Elkartearen Gastronomía eta Kultur arloak jaso ditu liburua. Aurkezpena 20:00etan hasiko da eta ondoren bertaratu direnak zerbait jan eta edatera gonbidatuko dituzte.

Ikuskizuna larunbatean

"Sueño andaluz" amets andaluziarraren izena hartu duen ikuskizuna eskainiko dute doan datorren larunbatean hilaren 31n arratsaldeko 19:00etatik aurrera kultur-etxean Elkarteko dantza eta musika talde ezberdinek. Ez da ordaindu beharko, Zambra, Azabache, Duende Flamenco eta Gitanillos del Alba dantza taldeak, Merche Montes abeslaria, Semblante Rociero korua eta Sentimiento Andaluz boskotea ikusteko.

Eta egitaraua borobiltzeko, igande eguerdian Semblante Andaluz-en elkartuko dira XX. Urteurrena ospatzeko. Herriko agintari, bazkide eta lagun bazkaria 14:30etan hasiko da eta 17:30etatik aurrera "Amigos del Sur" taldearen emanaldia eta dantzaldia izango dira.

Jose Pérez Semblante Andaluz-en bultzatzailea

“Andaluziako sustraiei eustea da gure xedea”

Jose Perez Acosta Huelvako da, bere gurasoekin etorri zen Bilbora zortzi urte zituen eta azken urteotan Lasarte-Orian bizi izan da. Bera izan da Semblante Andaluz kultur elkartearen lehen presidente eta bultzatzaile nagusietarikoak elkartearen sorrera eta gaur arte egindako ibilbidea berri eman digu. "Andaluziako egunean bazkaltzeko edo andaluziar giroko erromeriatara joateko elkartzen ginen. Hau eta Mari Carmen Vegas sevillana dantza irakaslea izan ziren oinarrian. Hasiera oso apala izan zen, 60 haur hasi ziren dantzan" kontatu digu.

20 urte beteko dituzue, nolako izan zen sorrera?

Lokala zen herriko kultur talde guztien arazo. Guk Blas de Lezo kalean alokatu genuen bat hasteko, eta gero, 1998an, oraindik ordaintzen ari gara, baina berria ireki genuen.

Elkarte gastronomikoen antzeko funtzionamendua du, ezta?

Euskal Herrian Andaluziako Etxe asko dira, ia denak kultur topagune besterik ez, baina guk argi genuen elkarte familiarra, kulturala eta gastronomikoa izan behar zuela.

Zenbat bazkide hasi zintzen eta zenbat zarete orain?

Oso gutxi hasi ginen, lehen bileran 27, eta gaur egun gutxi gorabehera 115 familia edo bikote gara.

Kulturak pisu handia izan du elkartearen, ezta?

Hasieran gehiena. 124 lagun genbiltzan talde ezberdinen jardueratan, 80 ume dantzan, euskal dantza taldea, mutil eta nesken futbol taldeak, gitarra flamenko ikastaroa, ... Gaur egun ere ehun lagun inguru bagabiltza zerbaitetan.

Gurea andaluziar sustraiei eta kulturari eustea da. Eta Andaluzia hurbiltzea, ez bakarrik bazkideei, baizik eta lasarte-oriarrei oro har. Azken finean, ez dugu gure jatorria ahaztu behar, baina, ezta, jada hemengo parte garela ere.

Zenbat andaluzir izango zarete Lasarte-Orian?

Hasi ginenean 420 inguru ginen, han jaiotakoak. Orain badira belaunaldi berriak baina horiek jada nortasun bikoitza dute.



Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean